

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2023ko martxoa

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gualdiak % 23,0 gehitu dira 2023ko martxoan

Logelen okupazio-maila ehuneko 7,8 puntu igo da 2022ko martxoaren aldean

2023ko martxoan, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak % 23,4 igo dira, eta gualdiak % 23,0, urte arteko terminoetan, Eustaten datuen arabera. Erregistratutako 258.063 sarrerek 481.962 gualdi ekarri dituzte.

2023ko martxoan, sarrera guztien (% 34,5) eta gualdien (% 35,8) herena baino zertxobait gehiago atzeritarrenak izan dira; haietan, sarrerak % 34,8 igo dira, eta gualdiak % 34,0. Bestalde, Estatutik etorritako sarrerak eta gualdiak % 18,1 eta % 17,7 igo dira, hurrenez hurren, urtetik urtera.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Martxoa 2023

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2023/03	m/m-12 (%)	2023/03	m/m-12 (%)	2023/03	2022/03
EUSKAL AE	258.063	23,4	481.962	23,0	1,87	1,87
Estatukoak	168.977	18,1	309.466	17,7	1,83	1,84
Atzeritarrak	89.086	34,8	172.496	34,0	1,94	1,95
Araba/Álava	35.866	17,8	69.923	18,7	1,95	1,93
Estatukoak	27.936	14,6	53.788	17,4	1,93	1,88
Atzeritarrak	7.930	30,9	16.135	23,4	2,03	2,16
Vitoria-Gasteiz	28.993	23,0	58.339	22,1	2,01	2,03
Bizkaia	113.340	24,0	211.883	23,6	1,87	1,88
Estatukoak	75.575	17,6	134.307	16,5	1,78	1,79
Atzeritarrak	37.765	39,1	77.576	38,2	2,05	2,07
Bilbao	83.248	27,8	153.473	29,0	1,84	1,83
Gipuzkoa	108.857	24,7	200.156	23,9	1,84	1,85
Estatukoak	65.466	20,3	121.371	19,1	1,85	1,87
Atzeritarrak	43.391	32,0	78.785	32,3	1,82	1,81
Donostia / San Sebastian	72.471	30,1	129.733	28,8	1,79	1,81

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Apirilaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Araban 35.866 sarrera eta 69.923 gualdi erregistratu dira, aurreko urteko martxoan baino % 17,8 eta % 18,7 gehiago. Bizkaian % 24,0 gehitu dira sarrerak eta % 23,6 gualdiak; guztira 113.340 sarrera eta 211.883 gualdi izan dira. Gipuzkoan 108.857 sarrera erregistratu dira 2023ko martxoan, 2022ko martxoan baino % 24,7 gehiago, eta 200.156 gualdi, aurreko urteko hil berean baino % 23,9 gehiago.

Hiriburuka, sarreren kopurua % 30,1 igo da Donostian, % 27,8 Bilbon eta % 23,0 Gasteizen. Era berean, aurreko urteko martxoaren aldean, gualdien gehikuntza % 28,8koa izan da Donostian, % 29,0koa Bilbon eta % 22,1koa Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia, 2023ko martxoan, 1,87 egunekoa izan da, 2022ko hil berean lortutakoaren antzekoa.

Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun-kopurua da, eta ez Euskal AEn ematen duten denbora-tarte osoa.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Martxoa 2023

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2023/03	p.p. *	2023/03	p.p. *	2023/03	m/m-12 (%)	2023/03	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	46,4	6,1	58,0	7,8	84,66	15,6	49,09	33,6
Araba/Álava	46,4	3,7	60,1	4,0	75,89	6,1	45,60	13,7
Vitoria-Gasteiz	48,7	4,0	65,1	3,7	66,55	5,7	43,33	12,1
Bizkaia	44,0	5,6	56,5	8,2	84,77	15,3	47,91	34,7
Bilbao	49,7	8,3	62,9	11,8	91,51	18,9	57,52	46,3
Gipuzkoa	49,4	7,6	59,0	8,7	87,66	19,2	51,71	39,9
Donostia / San Sebastian	53,3	9,1	62,1	11,8	100,54	16,8	62,45	44,1

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Apirilaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2023ko martxoko okupazio-maila, Euskal AE osoan, % 46,4koa izan da plazen arabera neurtzean, eta % 58,0koa logelen arabera neurtzean. 2022ko martxoarekin alderatuta, ehuneko 6,1eko eta 7,8ko puntuko igoerak izan dira, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADR edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua (komuna duen logela bikoitzari aplikatua, soilik ostatu-erregimenean), 84,7 eurokoa izan da 2023ko martxoan Euskal AEn, hau da, % 15,6ko igoera gertatu da aurreko urteko martxoaren aldean. ADRa 87,7 eurokoa izan da Gipuzkoan, 84,8 eurokoa Bizkaian eta 75,9 eurokoa Araban. Hiriburuetan aldeak handiagoak izan dira; izan ere, ADRa 100,5 eurokoa izan da Donostian, 91,5 eurokoa Bilbon eta 66,6 eurokoa Gasteizen.

RevPar edo gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak 49,1 eurokoak izan dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2023ko martxoan, aurreko urteko hilabete berean baino % 33,6 gehiago.

Informazio-oharra

Hoteletako ETHen erantzun-tasa, 2023ko martxokoa, % **91,1** izan da. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismo-datuen esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62